

## **LAU MUGIKORTASUN EKINTZATARAKO DEIALDIA, 2014AN LURRALDEA, PAISAIA ETA ONDAREA KATEDRAREN EREMUKO IKERKETA NAZIOARTEKOTZEKO**

Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedrak, Euskal Autonomia Erkideko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen lankidetzaz hitzarmen baten bitartez sortutakoak, lurraldearen, paisaiaren eta ondarearen inguruko prestakuntza, sentsibilizazio eta zabaltze, ikerketa eta unibertsitate-proiektuak jarduerak sustatzea du xede.

Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedraren konpromisoen artean Katedraren jarduera-eremuaren sustapena, prestakuntza eta sentsibilizazioa, graduondoko ikasketen babesa eta, bereziki, nazioartean aipamena duten Doktore Tesiak burutzeko daude.

### **DEIALDIAREN XEDEA**

Zientziaren aurrerapenari eta unibertsitateen zein I+G+b zentroen arteko lankidetzari laguntzeko helburuarekin, ikertzaileak atzerriko ikerketa-zentroetara joateko erraztasunak eman nahi ditu EHUren Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedrak deialdi honekin, zentro horietan gehienez ere lau hilabeteko egonaldiak egin ditzaten, lurraldearen, paisaiaren eta ondarearen eremuko ikerketak egite aldera.

### **DEIALDIAREN EZAUGARRIAK**

1. Laguntza ekonomikoa jasotzeko deialdi honen hartzaileak, gainerako mugikortasun-deialdietan ezin parte har dezaketen eta deialdi hau argitaratzeko unean EHUrekin ondorengo lan-lotura dutela egiazta dezaketen EHUk

kontratutako edo bertan prestaketa jasotzen ari diren ikertzaile ez-doktoreak izango da:

- 1.1. Bekaren lehenengo bi urteetan dauden -hirugarren urtea hasi gabe- Prestakuntzako Ikertzaileak.
  - 1.2. EHUrekin Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikulua aurreikusitako kontratuzko lotura duten ikertzaileak.
  - 1.3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legeak aurreikusitako kontratu-modalitateekin, Lan/Zerbitzurako edo Proiektu jakin baterako kontratatutako ikertzaile ez-doktoreak (PIC), deialdi batean lortutako ikerketa-proiektu batekin finantzatuta eta egonaldia proiektuaren helburuarekin lotuta dagoela justifikatuta.
  - 1.4. Unibertsitateen arteko tutorekidetza erregimenean doktorego tesiak egiteko kontratatutako ikertzaile ez-doktoreak.
2. Jomugako unibertsitateek edo ikerketa-zentroek nazioarteko aitortza edukiko dute haien eragin-eremuan.
  3. Gehienez ere lau hilabeteko egonaldietarako izango da laguntza ekonomikoa, eta 2013ko irailetik abendura bitartean izango dira egonaldiak.
  4. Deialdira aurkezteko ezin da laguntzarik jaso izatea ez deialdi honetan ez antzeko besteren batean, egonaldien aldi pilatua sei hilabete baino gehiago izanda, 2013ko urtarriletik 2014ko abendura arte. Egonaldien aldi pilatua sei hilabete baino gutxiago bada, 120 egunera heltzeko geratzen diren hilabetetarako eskatu ahal izango da laguntza.
  5. Laguntza ekonomiko hau bateraezina da helburu bera duen beste edozein diru laguntzarekin.

## **BETEKIZUNAK**

1.- Ikasleak, bere zuzendariak/ek parte hartzen du(t)en edozein Doktorego Programetan inskribatuta eduki behar du bere Doktore Tesi proiektua.

2.- Ezingo dira deialdira aurkeztu, doktorego-aurreko beka edukita horren hirugarren urtea hasi duten hautagaiak, mugirtasunarako laguntza ofiziala lortu ez dutenak aurrekontu ezagatik izan ezik.

3.- Doktoregaiak Tesiaren espezialitate-arloaren bikaintasun/kalitate parametroekin neur daitekeen emaitzaren bat eduki beharko du.

4.- Jatorriko zein jomugako zentroak ados egongo dira, eta eskaerarekin batera, bere tesi zuzendariaren/zuzendarien baimenarekin batera (zeinetan egonaldiaren egokitasuna espresuki adieraziko baita), dagokion baimena duela eta harrera-zentroko arduradunaren onarpen-gutuna aurkeztuko ditu hautagaiak.

## **LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

Mugikortasunerako lau laguntza deitu dira, lau hauentzat 7.600 euro gehienezko aurrekontua izanik.

Ostatu eta mantenu gastuak ordaintzeko laguntzen zenbatekoa egonaldia zein herritan egingo den eta zenbat egun naturalekoa izango den kontuan hartuz zehartuko da. 20 euro ordainduko dira egonaldiko egun ziurtatu bakoitzeko (100 egun gehienez), hasieran izendatutako denboraldia kontuan hartuta.

Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaia bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Bidaia gastuetarako gehienezko laguntza
1.000 Km arte	300 euro
1.001-2.500 Km	600 euro
Besteok	1.000 euro

Laguntza ekonomiko hau bateraezina da helburu bera duen beste edozein diru-laguntzarekin.

## ESKAERAK AURKEZTEA

- Eskaerak LURRALDEA, PAISAIA ETA ONDAREA KATEDRAREN KOORDINATZAILEari bidaliko zaizkio, katedraren egoitzara (Lascaray Ikergunea, Miguel Unamuno etorbidea, 3, 01006 Vitoria-Gasteiz).
- Deialdi honi atxikita doan orrian egingo da eskaera, eta EHUren Erregistro Nagusiaren bulego batean aurkeztuko da. (Erregistro Nagusiaren bulegoen zerrenda EHUren maiatzaren 28ko Ebazpenarekin argitaratu da, 2007ko abuztuaren 3ko EHAAn)([http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html)) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluaekin bat etorritik.
- Eskaerak ondorengoak edukiko dituzte:
  - a) Eskaera, inprimaki normalizatuan behar bezala beteta.
  - b) Eskatzailearen curriculum vitae-a.
  - c) Harrera-zentroko arduradunaren onarpen-gutuna.
  - d) Harrera-zentroko arduradunaren curriculum-a.

- e) Dagokion baimena.
  - g) Gainera, prestakuntza jasotzen ari direnek tesi zuzendariaren/zuzendarien baimena aurkeztuko dute.
- Eskaerak aurkezteko epea:  
Deialdi hau 2014ko aurrekontu-ekitaldia edo ikasturte honetarako kreditua amaitu arte egongo da zabalik.

## **ESKAERAK AZTERTZEKO IRIZPIDEAK**

Izangaiak aukeratzeko orduan, ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Jomugako zentroko ikertzailearen curriculum: /35 puntu/
- b) Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum: /35 puntu/
- c) Egonaldian garatu beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balorazioa: /30 puntu/

Laguntza ekonomikoa lortzeko hautagai izateko, 55 puntu eduki beharko ditu gutxienez eskaerak.

## **ESLEIPENA, ORDEZKOEN ZERRENDA ETA UKO EGITEA**

Hautatutakoei zuzenean eta banaka jakinaraziko zaie. Gainera, Katedraren zuzendaritzak bere egoitzako iragarki-taulan argitaratuko du laguntza jaso dutenen zerrenda.

Behin-behineko esleipenarekin batera ordezkoen zerrenda jarriko da, hutsik gera litezkeen lekuak betetzeko.

Laguntza esleitu ondoren norbaitek horri uko egiten badio, idatziz egingo du, dagokion inprimakiaren arabera, eta Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedraren egoitzan aurkeztuko du. Ukoa ezeztuezina izango da.

## **LAGUNTZA EKONOMIKOAREN KUDEAKETA ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

Esleitutako diru-kopuruaren %75 ebazpena jakinarazi ondoren jasoko da. Gainerakoa, jarduera amaitu ondoren eta txostena eta gastuen justifikazioa aurkeztu eta onartu eta gero.

Gastuak justifikatzeko, laguntza-eskatzaileek egindako ordainketen egiaztagiriak aurkeztuko dira. Bidaien kasuan, txartelak, hegazkineratzeko/ontziratzeko txartelak eta ticket originalak eskatuko dira horiek egiaztatzeke, bai eta fakturak edo ordainketa-ziurtagiriak ere. Diru-laguntza izan duen jarduera amaitu eta hilabeteko epean, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du ikertzaileak:

- a) Egonaldian egindako ekintza deskribatzen duen txostena.
- b) Ekintza horrek eragindako gastuen zerrenda eta horien egiaztagiriak.
- c) Egonaldiaren egiaztagiria; alegia, lankide izandako ikertzaileak sinatutako idatzi originala, egonaldiaren hasiera eta amaiera datekin.

Ikerketaren emaitza orotan espresuki eskertuko da Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedrak emandako diru laguntza.